

Administrazio Publikoek 163.196 pertsona zituzten enplegatuta 2025eko urtarrilaren 1ean, aurreko urtean baino % 0,2 gutxiago

Euskal administrazioetako funtzionarioen kopuruak % 7,9ko igoera izan du, eta bertako langile guztien % 69,8 dira

Eustaten datuen arabera, 2025eko urtarrilaren 1ean Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoek 163.196 pertsona zituzten enplegatuta, hau da, aurreko urtean baino % 0,2 gutxiago. Datu horrek Euskal AEn Estatuko Administrazioaren mende diharduten langileei buruzko informazioa biltzen du lehen aldiz.

Enplegu publikoan diharduten emakumeen eta gizonen arteko proportzioak ez du aldaketarik izan 2024tik; % 62 (101.161) emakumeak dira, eta % 38 (62.035) gizonak. 2020-2025 aldia aztertuz gero, euskal administrazioetan diharduten emakumeen kopuruak % 8,5eko igoera izan du, eta Estatuaren mendeko erakundeetan diharduten emakumeen kopurua, berriz, % 1 jaitsi da.

Euskal administrazio publikoetako enplegatuak urtarrilaren batean, sexuaren arabera. 2020-2025

	2020		2021		2022		2023		2024		2025	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Guztira	155.586	100,0	158.036	100,0	161.972	100,0	161.269	100,0	163.507	100,0	163.196	100,0
Emakumeak	61.674	39,6	61.542	38,9	62.494	38,6	61.928	38,4	62.124	38,0	62.035	38,0
Gizonak	93.912	60,4	96.494	61,1	99.478	61,4	99.341	61,6	101.383	62,0	101.161	62,0

Data 2025eko Abenduaren 19a

Iturria: Eustat, Administrazio publikoen direktorioa

Feminizazio-tasa % 50etik gorakoa da administrazio-esparru guztietan, eta bereziki nabarmentzen da euskal administrazioetan (% 64,2). Administrazio Zentralaren mendeko erakundeetan, berriz, tasa hori askoz txikiagoa da (% 38,8koa). Emakumeen tasarik handiena Eusko Jaurlaritzak du (% 70,2), eta, ondoren, foru-aldundiek (% 60,2). Toki-erakundeetan, sexuen arteko egitura oso orekatuta dago; % 50,3 emakumeak dira, eta % 49,7 gizonak.

Langileen egitura, esparru arautzailearen arabera

2025. urtearen hasieran, funtzionarioak Euskal AEko langile guztien % 68,3 ziren, hots, aurreko urtean baino portzentajezko 4,6 puntu gehiago, urte arteko % 7,1eko igoeraren ondorioz. Bestalde, langile lan-kontratudunak % 30,8 ziren, bi kasuetan Osakidetza estatutupeko langileak barnean hartuta. Gainerako % 0,9 goi-kargudunak ziren.

Lan-egonkortasunari dagokionez, langile publikoen % 63,8 finkoak dira, funtzionario, lan-kontratudun eta estatutupeko langile finkoak batuta. Proportzio hori % 61,1ekoa da euskal administrazioetan, eta % 91,5era iristen da Administrazio Zentralaren mendeko administrazioetan.

Euskal AEko administrazio publikoetan langile enplegatuak, esparru erregulatzailearen arabera. 2025/01/01

	ADMINISTRAZIO PUBLIKOA GUZTIRA	Euskal administrazioak, guztira	Eusko Jaurilaritza eta mendeko erakundeak	Foru aldundiak eta mendeko erakundeak	Toki-erakundeak eta mendeko erakundeak	Bestelako Euskal entitate publikoak	Estatuko Administrazioa guztira
Guztira	163.196	148.810	96.605	12.879	28.378	10.948	14.386
Goi karguak	1.504	1.456	331	217	728	180	48
Funtzionarioak guztira	111.413	103.881	75.756	8.104	17.028	2.993	7.532
Funtzionario finkoak	78.933	71.572	54.271	5.028	10.222	2.051	7.361
Bitarteko funtzionarioak	32.480	32.309	21.485	3.076	6.806	942	171
Lan kontratadunak guztira	50.279	43.473	20.518	4.558	10.622	7.775	6.806
Lan kontratadun finkoak	25.215	19.418	7.038	2.695	6.012	3.673	5.797
Aldi baterako lan kontratadunak	25.064	24.055	13.480	1.863	4.610	4.102	1.009

Data 2025eko Abenduaren 19a


Iturria: Eustat, Administrazio publikoen direktorioa

Bitarteko funtzionarioak guztien % 19,9 dira, hots, aurreko urtean baino % 6,6 gehiago. Nolanahi ere, euskal administrazioetan izandako igoera nabarmentzen da (% 7koa), batez ere Eusko Jaurilaritza eta haren mendeko erakundeetan (% 17,8koa). Toki-erakundeetan, haien mendeko erakundeetan eta beste euskal erakunde batzuetan ere gora egin du langile horien kopuruak (% 4,7), eta foru-aldundietan eta haien erakundeetan, berriz, % 8,7ko beherakada izan du. Estatuko Administrazioan, beherakada are handiagoa izan da (% 35,5koa).

Aldi baterako langile lan-kontratadunen ehunekoak behera egiten jarraitu du, eta portzentajezko bost puntuko jaitsiera izan du. Aurreko urtearekin alderatuta, % 25,2 gutxiago dira. Beherakadarik handiena Eusko Jaurilaritza eta haren mendeko erakundeetan gertatu da (-% 35,7), eta, ondoren, toki-erakundeetan eta haien mendekoetan (-% 12,1) eta gainerako beste euskal erakundeetan (-% 1,6). Foru-aldundietan eta haien mendeko erakundeetan, berriz, % 1eko igoera gertatu da, eta Estatuko erakunde publikoek % 22,5eko jaitsiera izan dute.

Oro har, bitarteko funtzionarioak eta aldi baterako langile lan-kontratadunak, batuta, guztien % 35,3 dira, hots, % 10,1 gutxiago.

2025eko urtarilaren 1ean Euskal AEko administrazio publikoetan langileak, esparru erregulatzailea



Iturria: Eustat. Administrazio publikoen direktorioa

Langileen banaketa, administrazio motaren arabera

2025eko urtarilaren 1ean, langile publiko guztien % 91,2k euskal administrazioetan ziharduten, eta % 8,8k Administrazio Zentralaren mendeko erakundeetan. Euskal administrazioen barruan, gehienek Euskal AEko Administrazio Orokorrean ziharduten (% 59,2k), eta, ondoren, toki-erakundeetan (% 17,4k), foru-aldundietan (% 7,9k) eta unibertsitatean, fundazioetan eta beste euskal erakunde publiko batzuetan (% 6,7k).

Urteko hazkundeari dagokionez, toki-erakundeek eta haien mendeko erakundeek izan dute igoerarik handiena langileen kopuruan (% 2,1ekoa), eta, haien atzetik, foru-aldundiak eta haien mendeko erakundeak (% 1,7ko igoerarekin) eta beste euskal erakunde publiko batzuk (% 0,5eko igoerarekin) kokatu dira. Aitzitik, Eusko Jaurlaritzan eta haren erakundeetan % 1,2ko beherakada gertatu da, eta Estatuko Administrazioan, berriz, % 0,1ekoa.

Urteko batez besteko langileei dagokienez, administrazio publiko guztiak kontuan hartuta, langile publikoen kopuruak 9.437 pertsonako igoera izan du 2019. urteaz geroztik, eta urteko batez besteko tasa metatua % 1ekoa izan da. Nolanahi ere, euskal administrazioetan izandako igoera nabarmentzen da (10.780 langile gehiago). Estatuko erakundeetan, berriz, 1.343 langile gutxiago dira, eta batez besteko tasa metatua -% 1,5era iritsi da. Hazkunde absoluturik handiena Eusko Jaurlaritzak eta haren mendeko erakundeek izan dute (+7.616), % 1,4ko batez besteko aldakuntza metatuarekin. Haien atzetik, honako hauek kokatu dira: toki-erakundeak (+1.641), % 1eko batez besteko aldakuntza-tasa metatuarekin; foru-aldundiak (+1.143), % 1,5eko tasarekin, eta unibertsitatea, fundazioak eta elkarte publikoak (+380), % 0,6ko batez besteko tasa metatuarekin.

Azken urtean, administrazio publikoetako langileen batez besteko kopurua % 0,7 igo da, eta igoerarik esanguratsuena toki-erakundeetan eta mendeko erakundeetan gertatu da (% 2,5ekoa).

Euskal herri administrazioetan batez besteko pertsonal enplegatua, entitate-motaren arabera. 2019-2024

	2019		2020		2021		2022		2023		2024		2024 / 2023	TMAA 2024 / 2019 (%)
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%		
ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK GUZTIRA	153.046	100,0	155.758	100,0	159.349	100,0	159.773	100,0	161.339	100,0	162.483	100,0	0,7	1,0
Euskal administrazioak, guztira	137.373	89,8	140.411	90,1	144.068	90,4	145.629	91,1	147.205	91,2	148.153	91,2	0,6	1,3
Eusko jaurlaritza eta mendeko erakundeak	88.457	64,4	91.230	65,0	94.077	65,3	95.424	65,5	96.296	65,4	96.073	65,4	-0,2	1,4
Foru aldundiak eta mendeko erakundeak	11.836	8,6	12.080	8,6	12.319	8,6	12.221	8,4	12.730	8,6	12.979	8,6	2,0	1,5
Toki-erakundeak eta mendeko erakundeak	26.504	19,3	26.325	18,7	26.598	18,5	26.913	18,5	27.456	18,7	28.145	18,7	2,5	1,0
Bestelako Euskal entitate publikoak	10.576	7,7	10.778	7,7	11.074	7,7	11.071	7,6	10.723	7,3	10.956	7,3	2,2	0,6
Estatuko Administrazioak guztira	15.673	10,2	15.347	9,9	15.281	9,6	14.144	8,9	14.134	8,8	14.330	8,8	1,4	-1,5

BBMT: batez besteko bariazio metatuaren tasa

Data 2025eko Abenduaren 19a

Iturria: Eustat, Administrazio publikoen direktorioa

Langileen banaketa, lurraldearen arabera

Administrazio publiko bakoitzak lurraldearen arabera duen ehunekoari dagokionez, Arabak du euskal administrazioen proportziorik handiena Estatuko Administrazioari atxikitako langileekin alderatuta (% 92,4 eta % 7,6, hurrenez hurren). Bizkaiko eta Gipuzkoako ehunekoak antzekoak dira. Izan ere, bietan langile publikoen % 90,8 Euskal Administraziokoak dira, eta % 9,2 Estatuko Administraziokoak.

Bestalde, Bizkaiko lurraldeak Administrazio Publikoko langile guztien % 49,1 bildu ditu, Gipuzkoak % 29,5 eta, azkenik, Arabak gainerako % 21,4.

Euskal AEko administrazioetan pertsonal enplegatuen lurralde-banaketa. 2025/01/01

	Guztira	Araba/Álava	Bizkaia	Gipuzkoa
Administrazio publikoak guztira	163.196	35.085	79.795	48.316
Euskal administrazioak, guztira	148.810	32.462	72.456	43.892
Eusko jaurlaritza eta mendeko erakundeak	96.605	21.269	47.465	27.871
Foru aldundiak eta mendeko erakundeak	12.879	4.144	5.783	2.952
Toki-erakundeak eta mendeko erakundeak	28.378	5.139	13.511	9.728
Bestelako Euskal entitate publikoak	10.948	1.910	5.697	3.341
Estatuko Administrazioak guztira	14.386	2.623	7.339	4.424

Data 2025eko Abenduaren 19a

Iturria: Eustat, Administrazio publikoen direktorioa

Ohar metodologikoa:

Administrazio Publikoen Direktorioaren esparrua osatzen dutenak honako hauek dira: Euskal AEko Administrazio Orokorra, foru-aldundiak eta udalak, haien mendeko administrazioko erakunde autonomoekin batera, erakunde publikoak, sozietate publikoak, fundazioak, irabazi-asmorik gabeko erakundeak eta Estatuko Administrazioaren mendeko erakunde publikoak. Barnean hartzen dira % 50eko edo hortik gorako partaidetza publikoa duten erakunde guztiak, dela administrazio bakar baten partaidetza, dela hainbat administrazio publikoren baterako partaidetza.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62